

Azpeitiko Udala - Kultura Saila

2021 Urtean Gipuzkoako lurraldean arkeologia ikerketak.

PROIEKTUA : LABARRETAKO ARTE miaketak eta ARKEOLOGI miaketa orokorrak

Antxieta Arkeologi Taldeko J. Inazio Arrieta koordinatzaile lanetan zuzendu du proiektu hau.

Bai Euskal Herriko eta bai beste zenbait ikerketa zentrotako ikerlariak hartu dute parte proiektu honetan.

Idatzi honen bidez **2021**urtean burutu ditugun Labar Artea eta arkeologia miaketak azaltzen ditugu.

PROIEKTUA :

LABARRETAKO ARTE miaketak eta ARKEOLOGI miaketa orokorrak

Urola , Deba eta Oria ko bailaratan.

Proiektu hau epe luzerako ikerketa bezala garatu dugu eta horrela laburtzen dugu :

- 1. 2021 urtean egindako lanak.**
 - 1.1- Labarretako ARTE miaketa sistematikoa.
 - 1.2- Labarretako ARTE kolaborazioko proiektuak.
 - 1.3 - Arkeologia miaketa orokorrak.
 - 1.4 - Arkeologia indusketetan kolaborazioa eta elkar lana.
- 2. 2021 erabili dugun egutegia.**
- 3. 2021 proiektuaren lan taldea.**
- 4. Laneko metodologia – Landa lanetan.**
- 5. Laneko metodologia – Bulegoan.**
- 6. Landa laneko miaketen segurtasuna eta aztarnen babesa.**

ANTXIETA ARKEOLOGI TALDEA

20730 AZPEITIA - GIPUZKOA

CIF G20420816

1 2021 urtean egindako lanak.

1.1 - Labarretako ARTE miaketa sistematikoa :

2014an markatutako kriterio orokorrarekin jarraituko dugu sistematikoki jarraipen bat emateko ikerketari.

Lehenengo fase honetan katalogatuak dauden eta ezagutzen ditugun kobazuloak ikertzea da :

Lan zabala dago katalogatuak eta ezagutzen ditugun kobazuloak begiratzen.
Espeleologia teknikak erabiltzeak lan gogorra egitea eskatzen du miaketa mota honek.

100 bat irteera ditugu Landa Lanetara.

Miaketen barruan EGILUZE deitzen zaion zonalde batean, aire librean, arrasto batzuk bilatu ditugu ikerketa sakonagoa eskatzen dutenak.

GFAko arkeologi teknikariarekin kontaktuan ipini gera, lekura bisita bat egin eta adostu dugu inguruak gehiago miatuko ditugula eta lehenago bilatutako arrastoak aditu baten elkarlana eskatuko diogula Diego Garateren ekipoarekin harremanetan ipintzea aurreikusiz.

Aire libreko miaketak izanda, neguko partean egitea aurreikusten dugu bertako landaretza indar gutxiagorekin egongo delako eta horrela errazagoa egiten delako bertan mugitzea.

GFAari behin behineko informazioa pasatu diogu.

Honako hauek dira ikertzen ari garan aipagarriak :

UROLA bailara :

Danbolinzulo-II	Zestoa	Ikertzen ari gara.	Lanean
Saletxe Zahar-II	Zestoa	Ikertzen ari gara.	Lanean
Erlaitz	Zestoa	Paleolito Labar artea aurkitua 2015	Lanean
Erlaitz-II	Zestoa	Ikertzen ari gara.	Lanean
Amabiturri	Zestoa	Ikertzen ari gara.	Lanean

ORIA bailara :

Antonen koba	Ataun	Ikertzen ari gara. Duda batzuk dauzkagu argitu beharrekoak	Lanean
Allekoaitze	Ataun	Planifikatua miazteko.	Planifikatua
Sastarri-II	Ataun	Planifikatua miazteko.	Planifikatua
Armontaitze	Ataun	Planifikatua miazteko.	Planifikatua
Kobazar	Ataun	Planifikatua miazteko.	Planifikatua
Egiluze	Igeldo	Ikertzen ari gara. Arrasto batzuk aurkitu ditugu eta gehiago miazten ari gera	Lanean

DEBA bailara :

Agarre	Mendaro	Paleolito Labar artea eta arte higgorra aurkitua 2018	Lanean
Aixa	Deba	Paleolito Labar artea izan litekeena aurkitua 2019	Lanean
Koba Aundi	Arrasate	Ikertzen ari gara.	Lanean
Lizarrola	Mendaro	Ikertzen ari gara.	Lanean

ANTONEN Koba – Ataun

GFAko Mertxe Urteaga arkeologo teknikaria eta EHU Euskal unibertsitateko Dra. Blanca Ochoarekin joan gera Apirilean, 2020an aurkituak genituen arrastoen kalkoak egitera eta begirada bat ematera kobaren berezitasun guztiei.

Momentuan ez da ezer garbirik ateratzea lortu eta gehiago sakondu beharra dago.



EGILUZE – Igeldo

GFAko Mertxe Urteaga arkeologo teknikariarekin joan gera Urrian eta zona honetan, aire librean aurkituta dauzkagun arrastoak gainbegiratu ditugu.

Momentuan ez dago hipotesi garbirik eta erabaki degu Dr. Diego Garate eta bere adituen ekipoari daukagun informazioa bidali eta beraiekin elkarlanean gehiago sakontzekotan gara .



1.2 – Labarretako ARTE kolaborazioko proiektuak :

Beste alde batetik azken urteetan aurkitu ditugun **LABAR ARTE** aurkikuntza berriak, ikertzaile adituak, argitarapenetako eta zabalkuntzarako egiten dituzten landa lanetan kolaborazioan edo elkar lanean laguntzen diegu ikerketekin

ERLAITZ – Zestoa

EHU Euskal unibertsitateko **Dra. Blanca Ochoa** eta **UCM** Madrilgo Complutense unibertsitateko **Dr. Marcos Garcia** ikerketa lanean ibili gera kolaborazioan.



ANTXIETA ARKEOLOGI TALDEA


20730 AZPEITIA - GIPUZKOA

CIF G20420816

AGARRE – Mendaro

EHU Euskal unibertsitateko **Dra. Blanca Ochoa** eta UCM Madrilgo Complutense unibertsitateko **Dr. Marcos Garciarekin** ikerketetan lagundu diegu.

AGARRE kobazuloko topografia berria egin dugu detaile guztiekin eta galeria eta gela arruntez gain altueratan dauden txapalda edo plataforma naturalak aztertu ditugu. .



LABAR Artearen miaketa sistematikoarekin batera **2021** urtean jarraitu dugu :

1.3 Arkeologia miaketa orokorrak.

Urtean zehar arkeologia miaketa orokorrak Urola, Deba eta Oria bailaratan irteerak programatzen ditugu, batez ere katalogatuak ez dauden kobazuloak bilatu, identifikatu eta dokumentatzen ditugu, beraietan horrela erabakitzen denean, GFAari baimenak eskatu eta ikerketekin jarraitzeko aukerarekin.

Hauetako adibide argia : **AMABITURRIETA** Zestoakoa da adibide aipagarria.

AMABITURRIETA – Zestoa

Koba honetan lehenago eginda genituen miaketetan animalia ezberdinen hezurak aurkituak genituen kobaren zonalde ezberdinetan, argazkiak atera eta GFAari baimen berezia eskatuaz Dr. Asier Gomez-Olivencia paleontologoarekin elkarlanean proiektu bat martxan ipini dugu, koba honetan dauden aztarnak metodologikoki astertzeko.

Ikerketaren behin behineko fase honetan azaldu diran hezurren tartean aipagarriena *Ursus deningeri* hartzarenak dira eta esan liteke paleontologi aldetik garrantzi handiko aztarnategia dela. Datozen urteetan ikerketekin jarraitu behar da.



ANTXIETA ARKEOLOGI TALDEA

20730 AZPEITIA - GIPUZKOA

CIF G20420816

1.4 Arkeologia indusketetan kolaborazioa eta elkar lana.

Beste ikertzaileek eskatuak dituzten indusketetan parte hartzen dugu gure elkarlanarekin, bai indusketak egiterako logistika parte garrantzitsuekin eta baita indusketako lan orokorrekin ere :

AMALDA-III – Zestoa

BIZKAIAko arkeologia museoko ikertzailea den **Dr. Joseba Rios** eta **CNIEH** Centro nacional investigacion evolucion humana ko **Dra. Laura Sanchez** ekin ikerketan ibili gera kolaborazioan.



BAIO – Zestoa

EHUko ta Ramon y Cajal ikertzailea den **Asier Gomez** eta **BIZKAI**Ako arkeologia museoko ikertzailea den **Dr. Joseba Rios** eta **bezte zenbait kolaboratzaileekin** ikerketa lanean ibili gera kolaborazioan Zestoako koba honetan.

2021 lanean kolaboratu degu ikerketetan, bai logistika aldetik, baita ere indusketa lan zuzenekin eta baita GORDAILUan materialen inbentarioak eta osatzearekin ere.



BAIO – Zestoa

GORDAILUKO lana benetan pazientzia izugarria eta dedikazio handikoa da.

1990 eta 1998/1999ko Antxietaren zundaketan irtendako hezur zatiak elkarrekin doazenak aurkitu eta juntatzeak benetan eragin handia edukitzen ari da kolezioa osatzen bere ikerketarako.



2. 2021 eta 2022ko proiektuaren egutegia :

Miaketa hauek aire librean egin beharrekoak izanda klimatologiak eragin handia eduki du.

Landa laneko irteera gehienak udaberri, udara eta udazkenean burutu ditugu.

Urteko gainontzeko hilabeteetan ere kobazulo barruetan lanean jarraitzen dugu eta eguraldiak laguntzen baldin badu miaketa lanak edozein momentutan egin ditugu.

Aste bukaera, jai egunak eta oporrak erabili ditugu miaketak burutzeko.

3. 2021 proiektuaren lan taldea :

Miaketak egiteko lan talde orokorra Antxietako ohizko taldeak egin dugu.

Taldeakideak orain dela 40 urtetik arkeologia miaketetan eta indusketetan ibilitako jendea gera :

Erraila 1978, Amalda 1979/1984 eta 1985etik 2020ra, Aizpitarte, Lezetxiki, Irikaitz, Munoaundi, Basagain, Bolinkoba, Silibranca eta abar.

Beste zenbait ikerketetan ere parte hartu dutenak gera taldekideak.

Zuzendaritza :

Jose Inazio Arrieta izango da Antxieta taldearen aldetik koordinazioaz arduratu dena, 1978tik lehenago aipatu ditugun ikerlarien indusketetan parte hartutakoa eta beste 200 kata edo zundaketetan parte hartu duen aditua da.

Topografia eta geopozizionamentu lanetan, goi mailako telekomunikazio ingeniari-taldea lizentziatua eta taldekidea den **Iñigo Arizaga** izan da arduratu dena.

Labar Artean eta arkeologian ikerlari adituak :

EHU Euskal unibertsitateko **Dra. Blanca Ochoa** Labar Artean aditua kolaborazio teknikoan.

UCM Madrilgo Complutense unibertsitateko **Dr. Marcos Garcia** Labar Artean aditua kolaborazio teknikoan.

IPC instituto internacional de investigaciones prehistoricas de Cantabria ko **Dr. Diego Garate** Labar Artean aditua kolaborazio teknikoan.

EHUko ta **Ramon y Cajal** ikertzailea den **Asier Gomez** eta **BIZKAIA**ko arkeologia museoko ikertzailea den **Dr. Joseba Rios** izango ditugu ere elkarlanean.

4. Laneko metodologia – Landa lanetan :

Protokolo zorrotzak erabiltzen dira sistematikoki ikerketa hauetan.

Azken urteetan erabiltzen dugun metodologia era bat sistematizatu dugu eta koba guztietan aplikatzen ari gara.

Gaur egun merkatuan dauden teknologia aurreratuena erabiltzen ditugu, bai iluminazio aldetik LED sistemarekin, argi hotsak eta beroak eta ze esanik ez, imagen eta datu tratamendu aplikazio informatiko ugari erabiltzen direla lanerako.

Koba batzuen kasuan begiratu ondoren erabakitzen dugu bukatutzat ematea rebisioa eta beste kasu batzuetan berriro begiratzeko edo gehiago aztertzeko lagatzen ditugu.

Koba baten rebisioan aztarnaren bat aurkitzen ba dugu edo dudako gauzaren bat aurkitzen dugunean argazkiak atera, teknikoki ondo dokumentatu eta Gipuzkoako foru Aldundiko arkeologo teknikaria **Dra. Mertxe Urteaga** kin kontaktuan ipintzen gara konprobaketak egiteko.

Azken urteetan ARTE LABARRetako miaketetan espezializatu gara maila bikaina lortuz.



5. Laneko metodologia – Bulegoan :

Teknologia aurreratuenak erabiltzen ditugu bulegoko lanetan eta gaur egun merkatuan dauden imagen eta datu tratamendu aplikazio informatiko ugari erabiltzen dira lanerako.

Gaur egun bai Labar Arte miaketen eta baita ere Arkeologia miaketen laneko eta ikerketen zati garrantzitsuenetakoa teknologia informatikoetan dago eta hauetako batzuk bulegoan aplikatu beharrekoak dira.

Azken urteetan bulegoko lanerako ere teknologia aurrerakoenetan espezializatu gara.



6. Landa laneko miaketen segurtasuna eta aztarnen babesa :

Miaketa jardueratan, bai kobazulo edo bestelako leku arkeologiko guztietan protokolo eta kontu handia erabiltzen dugu, beraietan egon litekeen edozein eratako aztarna arkeologikoak zaintzeko eta askotan hain delikatuak diren gauzak babesteko.